**Esp. kodea:** 2013CHOZ0005
**Titularra:** HIRIGINTZA DEPARTAMENTUA
**Gaia:** OTA - URIBARRI - LORAMENDI
**Hasiera data:** 2013/03/26

# ANTEPROYECTO DE DESARROLLO DEL SISTEMA OTA EN LA ZONA 1

---

# 1 GUNEAN TAO SISTEMAREN GARAPENAREN AURREPROIEKTUA




| 1.1 Azpi - gunea | 1.2 Azpi - gunea | 1.3 Azpi - gunea |
| --- | --- | --- |
| Mugatutako eremua | Mugatutako eremua | Mugatutako eremua |
| Bertakoak | Bertakoak | |




- TAO GUNERA SARRERA
- TAO GUNETIK IRTEERA
- BARNE SEINALIZAZIOA

SEINALEAK

1. GUNEA




PARKIMETROAK

# 1. GUNEA




# APARKALEKU KOPURUA

# 1. GUNEA

Esp.kodea: 2013HORD0001

Gaia: OTA - TAO
Hasiera eguna: 2013/01/17

# ARRASATEN ARAUPEKO APARKALEKUAREN UDAL ORDENANTZA


| | |
|---|---|
| XEDAPEN OROKORRAK ETA XEDEA | DISPOSICIONES GENERALES Y OBJETO |
| 1. Artikulua. Eskumena | Artículo 1. Competencia |
| 2. Artikulua. Xedea | Artículo 2. Objeto |
| TAO GUNEAK | ZONAS OTA |
| 3. Artikulua. TAO Guneak | Artículo 3. Zonas OTA |
| 4. Artikulua. Mugatutako Guneak eta Azpiguneak | Artículo 4. Zonas y Subzonas delimitadas |
| ARAUPEKO APARKALEKU SISTEMA | SISTEMA DE ESTACIONAMIENTO REGULADO |
| 5. Artikulua. TAO Guneetan aparkatzeko baldintzak | Artículo 5. Condiciones para el estacionamiento en Zonas OTA |
| 6. Artikulua. TAO aplikatzeko egutegia eta ordutegia | Artículo 6. Calendario y horario de aplicación de la OTA |
| 7. Artikulua. Kudeaketa sistema | Artículo 7. Sistema de gestión |
| 8. Artikulua. 1. Gunean kudeaketa sistemaren ezaugarriak | Artículo 8. Características del sistema de gestión en la Zona 1 |
| 9. Artikulua. 1.1 Azpigunean kudeaketa sistemaren ezaugarriak | Artículo 9. Características del sistema de gestión en la Subzona 1.1 |
| 10. Artikulua. 1.2 Azpigunean kudeaketa sistemaren ezaugarriak | Artículo 10. Características del sistema de gestión en la Subzona 1.2 |
| 11. Artikulua. 1.3 Azpigunean kudeaketa sistemaren ezaugarriak | Artículo 11. Características del sistema de gestión en la Subzona 1.3 |
| 12. Artikulua. Tarifak | Artículo 12. Tarifas |
| 13. Artikulua. Zaintza eta kontrola | Artículo 13. Vigilancia y control |
| 14. Artikulua. Ezintasuna duten pertsonentzako plazak | Artículo 14. Plazas para personas con discapacidad |
| EGOILIARRENTZAKO ARAUBIDEA | RÉGIMEN DE RESIDENTES |
| 15. Artikulua. Egoiliarrak | Artículo 15. Residentes |
| 16. Artikulua. Egoiliarrak (ohikoak) | Artículo 16. Residentes (convencionales) |
| 17. Artikulua. Merkataritzakoa, 1. mota | Artículo 17. Comercial tipo 1 |
| 18. Artikulua. Merkataritzakoa, 2. mota | Artículo 18. Comercial tipo 2 |
| 19. Artikulua. Egoiliarrentzako txartelak | Artículo 19. Tarjetas de residentes en general |
| 20. Artikulua. Egoiliar txartela lortzea | Artículo 20. Obtención de la tarjeta de residente |
| BESTE ARAUBIDE BEREZI BATZUK | OTROS REGÍMENES ESPECIALES |
| 21. Artikulua. Txartel bereziak ematea | Artículo 21. Otorgamiento de tarjetas especiales |
| TAXIAK ETA ANBULANTZIAK | TAXIS Y AMBULANCIAS |
| 22. Artikulua. Taxiak eta anbulantziak | Artículo 22. Taxis y ambulancias |
| ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK | INFRACCIONES Y SANCIONES |
| 23. Artikulua. Xedapen orokorrak | Artículo 23. Disposiciones generales |
| 24. Artikulua. Arau hausteak | Artículo 24. Infracciones |
| 25. Artikulua. Zigorrak | Artículo 25. Sanciones |
| 26. Artikulua. Salaketak deuseztatzea | Artículo 26. Anulación de las denuncias |
| 27. Artikulua. Ibilgailua ibilgetu eta eramatea | Artículo 27. Inmovilización y retirada del vehículo |
| ORDENANTZAREN APLIKAZIOA ETETEA | SUSPENSIÓN DE LA APLICACIÓN DE LA ORDENANZA |
| 28. Artikulua. Ordenantzaren aplikazioa unean-unean eteteko aukera. | Artículo 28. Posibilidad de suspender puntualmente la aplicación de la Ordenanza |
| XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA | DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA |

| XEDAPEN OROKORRAK ETA XEDEA | DISPOSICIONES GENERALES Y OBJETO |
|---|---|
| **1. Artikulua. Eskumena** | **Artículo 1. Competencia** |
| Ordenantza hau luzatzen da trafikoari eta zirkulazioari buruz udalerriari emandako eskumenaren arabera, hau da, apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, 25,2b) artikuluan, bai eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 7. eta 38. artikuluek emandako eskumenaren arabera. | La presente Ordenanza se dicta en virtud de la competencia atribuida al Municipio en materia de tráfico y circulación por la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, en su artículo 25,2b), así como por los artículos 7 y 38 del Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial. |
| **2. Artikulua. Xedea** | **Artículo 2. Objeto** |
| Ordenantza honen xedea da Arrasateko udalerrian araupeko aparkalekua agindu behar duten arauak finkatzea. | Es objeto de la presente Ordenanza establecer las normas que han de regir el estacionamiento regulado en el Municipio de Arrasate. |
| Neurriak ezarri dira bide publikoan, Gune jakin batzuetan, ibilgailuen aparkalekua antolatzeko, erabilera, espazioa eta denbora kontuan izanik, horietan aparkalekuen txandaketa bermatzeko, eta neurriak ezarriko dira horiek bete daitezen bermatzeko. | Se establecen medidas para ordenar funcional, espacial y temporalmente el estacionamiento de los vehículos en la vía pública en unas Zonas determinadas, con el fin de garantizar la rotación de los aparcamientos en las mismas, estableciendo medidas para garantizar su cumplimiento. |
| **<u>TAO GUNEAK</u>** | **<u>ZONAS OTA</u>** |
| **3. Artikulua. TAO Guneak** | **Artículo 3. Zonas OTA** |
| TAO aparkaleku sistema ezartzen deneko guneak zatituko dira "Gune"etan, elkarren segidan zenbatuta eta behar den moduan mugatuta eta adierazita, seinale horizontalaren eta bertikalaren bidez. "Guneak" "Azpigune"etan zatitu daitezke. | Los espacios en los que se implante el sistema de estacionamientos OTA se dividirán en "Zonas", numeradas correlativamente y convenientemente delimitadas e indicadas mediante la oportuna señalización horizontal y vertical. Las "Zonas" pueden estar divididas en "Subzonas". |
| **4. Artikulua. Mugatutako Guneak eta** | **Artículo 4. Zonas y Subzonas delimitadas** |

| **Azpiguneak** | |
|---|---|
| Arrasateko udalerrian mugatzen diren Guneak eta Azpiguneak hauek dira: | Las Zonas y Subzonas que se delimitan en el Municipio de Arrasate son las siguientes: |
| 1. Gunea (Uribarri-Loramendi) | Zona 1 (Uribarri-Loramendi) |
| Gipuzkoako Foruen plaza, Udala plaza, Uribarri etorbidea, Uribe kalea eta Loramendi kalea zirkuituak mugatutako bideria publikoaren barruko lurralde eremuak hartzen duena, bai eta haren segidan dagoen ingurunearena ere. | Comprendida por el ámbito territorial interior a la vialidad pública delimitada por el circuito Gipuzkoako Foruen Plaza, Udala plaza, Uribarri etorbidea, Uribe kalea y Loramendi kalea, así como del entorno inmediatamente próximo al mismo. |
| Gune hau, era berean, hiru Azpigunetan dago zatituta: | La presente Zona se divide, a su vez, en tres Subzonas: |
| ***1.1 Azpigunea*** | ***Subzona 1.1*** |
| Jose Mª Arizmendiarrieta pasealekua, Arrasate pasealekua eta Loramendi kalearen bidezatiak hartzen ditu, Arimazubi plaza inguratzen duena, luzaturik apur batean Loramendi kalerantz. Eta horri atxikita daude etxebizitza eta merkataritza edo ekipamendu lokal hauek: | Comprende los tramos de las calles Jose Mª Arizmendiarreta pasealekua, Arrasate pasealekua y Loramendi kalea que rodean al conjunto residencial de Arimazubi plaza, con una pequeña prolongación hacia la parte sur de Loramendi kalea. A ella quedan adscritas las viviendas y los locales comerciales o equipamentales sitos en: |
| Arrasate pasealekua 18, 33, 35 eta 37 | Arrasate pasealekua 18, 33, 35 y 37 |
| Loramendi kalea 1, 2, 3, 4, 5, 7 eta 9 | Loramendi kalea 1, 2, 3, 4, 5, 7 y 9 |
| Arimazubi plaza 1 eta 2 | Arimazubi plaza 1 y 2 |
| | |
| ***1.2 Azpigunea*** | ***Subzona 1.2*** |
| 1. Gunearen barruan dagoen Uribarri etorbidearen bidezatia, Uribe kalea, Eguzki dorre inguruan dagoen Loramendi kaleko bidezatia, eta Iturripe kiroldegira sartzeko bidearen iparreko bidezatia hartzen ditu. Eta horri atxikita daude etxebizitza eta eta merkataritza edo ekipamendu lokal hauek: | Comprende el tramo de la calle Uribarri etorbidea incluido en la Zona 1, así como Uribe kalea y el tramo de Loramendi kalea situado en los aledaños de la Torre Eguzki, además del tramo norte del vial de acceso al Polideportivo de Iturripe. A ella quedan adscritos, por su parte, las viviendas y los locales comerciales o equipamentales sitos en: |

| | |
|---|---|
| Uribarri etorbidea 1, 3, 5, 7, 4ac, 6ac, 8ac, 10ac, 12ac,14ac, 16ac, 18ac, 20ac, 22ac eta 24ac | Uribarri etorbidea 1, 3, 5, 7, 4ac, 6ac, 8ac, 10ac, 12ac,14ac, 16ac, 18ac, 20ac, 22ac y 24ac |
| Uriburu kalea 9, 11, 13, 15, 17, 19, 21, 23, 25, 27 eta 29 | Uriburu kalea 9, 11, 13, 15, 17, 19, 21, 23, 25, 27 y 29 |
| Uribe auzoa 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21 eta 22 | Uribe auzoa 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21 y 22 |
| Loramendi kalea 6 | Loramendi kalea 6 |
| | |
| ***1.3 Azpigunea*** | ***Subzona 1.3*** |
| 1. Gunean sartutako gainerako lurzorua hartzen du, hau da, Loramendi kaleko erdialdeko eta mendebalderantzago dauden bidezatiak, eta Iturripe kiroldegira sartzeko bidearen hegoko bidezatia. | Comprende el resto del suelo incluido en la Zona 1, es decir, los tramos central y más occidental de la calle Loramendi y el tramo sur del vial de acceso al Polideportivo de Iturripe. |
| Aurreko Guneak eta Azpiguneak mugatuta datoz 1. Eranskin moduan Ordenantza honekin batera datorren planoan. | Las anteriores Zona y Subzonas se encuentran delimitados en el plano que se adjunta a la presente Ordenanza como Anexo 1. |
| **ARAUPEKO APARKALEKU SISTEMA** | **SISTEMA DE ESTACIONAMIENTO REGULADO** |
| **5. Artikulua. TAO guneetan aparkatzeko baldintzak** | **Artículo 5. Condiciones para el estacionamiento en Zonas OTA** |
| Mugatutako Guneetan ibilgailua aparkatzeko, eta hala ezarritako aldietan, horri buruz dauden arau orokor eta berezi guztiak betetzeaz gain, ibilgailuek erakutsi beharko dute haizetakoaren barrualdean, kanpoaldetik guztiz ikusteko eta irakurtzeko moduan, edo aparkalekua baimentzen duen tiketa, ibilgailua aparkatzean makina banatzailean jasoko dena, edo Azpiguneari dagokion egoiliar txartela. | Para estacionar el vehículo en las Zonas delimitadas, y en los períodos de tiempo así establecidos, además de cumplir todas las normas generales y particulares al respecto, los vehículos deberán exhibir en el interior del parabrisas, de forma totalmente visible y legible desde el exterior, bien el ticket que autoriza el estacionamiento y que se recogerá en la máquina expendedora al estacionar el vehículo, o bien la tarjeta de residente correspondiente a la Subzona. |
| **6. Artikulua. TAO aplikatzeko egutegia eta ordutegia** | **Artículo 6. Calendario y horario de aplicación de la OTA** |

| | |
|---|---|
| 1. Gunean aparkatzeko muga aplikatuko da astelehenetik egubakoitzera arte, hasi 9:00etan eta 19:00 arte. TAO zerbitzua aplikatzetik salbuesten dira zapatuak, domekak, jai egunak eta abuztu osoa. | En la Zona 1 la limitación de estacionamiento se aplicará de lunes a viernes, de 9:00 horas a 19:00 horas. Se exceptúan de la aplicación del servicio OTA los sábados, domingos, festivos y todo el mes de agosto. |
| **7. Artikulua. Kudeaketa sistema** | **Artículo 7. Sistema de gestión** |
| Ordenantza beteko dela bermatzeko, kontrol sistema bat ezarriko da, behar diren baliabide materialak eta pertsonalak izango dituena. | Al objeto de garantizar el cumplimiento de la Ordenanza se establecerá un sistema de control dotado de los medios materiales y personales necesarios. |
| Kudeatuko da, batez ere, aparkamendua kontrolatzeko diren zaintza langileen bidez eta bide publikoan dauden tiket banatzaileen bidez, egoiliar txartela emateko eta salaketak izapidetzeko dauden udal tresnekin batera. | La gestión se realizará fundamentalmente mediante el personal de vigilancia destinado para el control del estacionamiento y los expendedores de tickets ubicados en la vía pública, junto con los dispositivos municipales orientados al otorgamiento de las tarjetas de residente y a la tramitación de denuncias. |
| **8. Artikulua. 1. Gunean kudeaketa sistemaren ezaugarriak** | **Artículo 8. Características del sistema de gestión en la Zona 1** |
| 8.1 Lehenengo ordu eta erdian ez da tarifarik ordaindu behar ibilgailua aparkatzeagatik. Hortik aurrera, aldi baterako tarifa progresiboa finkatuko da, denboraren araberakoa, Azpigune bakoitzean ezarritako berezitasunekin, geroago adieraziko direnak. | 8.1 No existirá la obligación de pago de tarifa alguna por el estacionamiento del vehículo durante la primera hora y media. De ahí en adelante, se fijará una tarifa temporal progresiva, en función del tiempo, con las peculiaridades que se establezcan en cada Subzona, que más adelante se indicarán. |
| 8.2 Aparkaleku denbora igarotakoan, erabiltzaileak ibilgailua kendu egin beharko du hortik, eta ezingo du berriro aparkatu 1. Gunean, hiru orduko aldi bat igaro arte. | 8.2 Transcurrido el periodo de aparcamiento, la persona usuaria deberá proceder a la retirada del vehículo, no pudiendo volver a estacionarlo en la Zona 1, hasta que haya transcurrido un período de tres horas. |
| **9. Artikulua. 1.1 Azpigunean kudeaketa sistemaren ezaugarriak** | **Artículo 9. Características del sistema de gestión en la Subzona 1.1** |
| 9.1 Azpigune honetan gehienezko aparkaleku denbora ordu eta erdikoa izango da. | 9.1 El tiempo máximo de estacionamiento en esta Subzona será de una hora y media. |
| 9.2 Ez da tarifarik ordaindu behar ibilgailua | 9.2 No existirá la obligación de pago de tarifa |

| | |
|---|---|
| aparkatzeagatik 1.1. azpigunean. Edozelan ere, makina banatzailearen tiketa erakutsi beharko dute ibilgailuek, irakurtzeko moduan. | alguna por el estacionamiento del vehículo en la Subzona 1.1. Ello no obstante, los vehículos deberán exhibir de forma legible el ticket de la máquina expendedora. |
| 9.Aparkaleku aldia igarotakoan, erabiltzaileak ibilgailua kendu egin beharko du 1.1. Azpigunetik. Segidan, 1.2 Azpigunean aparkatu ahal izango du gehienezko hiru orduak osatu arte geratzen den denboran. | 9.3 Transcurrido el periodo de aparcamiento, la persona usuaria deberá proceder a la retirada del vehículo de la Subzona 1.1. Seguidamente podrá estacionar en la Subzona 1.2 por el período de tiempo que reste hasta completar el máximo de tres horas. |
| 9.4 1.1 Azpigunerako finkatutako doako aparkaleku aldia igarotakoan, ibilgailua 1.2 Azpigunera pasatzen ez bada eta Gunea uzten badu, ezingo du berriz ere 1. Gune horretan aparkatu, lehen adierazitako hiru orduko aldia igaro arte. | 9.4 Si transcurrido el tiempo de aparcamiento gratuito fijado para la Subzona 1.1, el vehículo no opta por pasar a la Subzona 1.2 y abandona la Zona, no podrá volver a estacionar en toda la Zona 1, hasta que haya transcurrido el período de tres horas anteriormente señalado. |
| 9.5 1.1 Azpiguneari dagokion egoiliar txartela daramaten ibilgailuek 1.1 Azpigunean aparkatu ahal izango dute ezelako ordu mugarik gabe. | 9.5 Los vehículos que porten la tarjeta de residente correspondiente a la Subzona 1.1 podrán aparcar en la Subzona 1.1 sin limitación horaria. |
| **10. Artikulua. 1.2 Azpigunean kudeaketa sistemaren ezaugarriak** | **Artículo 10. Características del sistema de gestión en la Subzona 1.2** |
| 10.1 Azpigune honetan gehienezko aparkaleku denbora hiru ordukoa izango da. | 10.1 El tiempo máximo de estacionamiento en esta Subzona será de tres horas. |
| 10.2 Lehenengo ordu eta erdian ez da tarifarik ordaindu behar ibilgailua aparkatzeagatik. Hortik aurrera, gainerako ordu eta erdian, gehienezko hiru orduko aparkaleku aldia osatu arte, denbora tarifa progresibo bat finkatuko da, denboraren arabera. | 10.2 No existirá la obligación de pago de tarifa alguna por el estacionamiento del vehículo durante la primera hora y media. De ahí en adelante, para la hora y media restante hasta completar el período de estacionamiento máximo de tres horas, se fijará una tarifa temporal progresiva, en función del tiempo. |
| 10.3 1.1 Azpigunetik badator ibilgailua, 1.1 Azpigune horretan aparkaturik emandako denbora zenbatuko da, tarifa ordaintzeko hasierako unea zehazte aldera. | 10.3 En caso de que el vehículo proceda de la Subzona 1.1 se computará el tiempo que ha estado estacionado en dicha Subzona 1.1 a efectos de determinar el momento de inicio del pago de la tarifa. |
| 10.4 Edozelan ere, 1.2 Azpiguneari dagokion makina banatzailearen tiketa erakutsi beharko | 10.4 En todo caso, los vehículos estacionados deberán exhibir de forma legible el ticket de la |

| | |
|---|---|
| dute aparkatutako ibilgailuek, irakurtzeko moduan. | máquina expendedora correspondiente a la Subzona 1.2. |
| 10.5 Aparkaleku denbora igarotakoan, erabiltzaileak ibilgailua kendu egin beharko du hortik, eta ezingo du berriro aparkatu 1. Gunean, lehen adierazitako hiru orduko aldi bat igaro arte. | 10.5 Transcurrido el periodo de aparcamiento, la persona usuaria deberá proceder a la retirada del vehículo, no pudiendo volver a estacionarlo en la Zona 1, hasta que haya transcurrido el período de tres horas anteriormente señalado. |
| 10.6 1.2 Azpiguneari dagokion egoiliar txartela daramaten ibilgailuek 1.2 Azpigunean aparkatu ahal izango dute ezelako ordu mugarik gabe. | 10.6 Los vehículos que porten la tarjeta de residente correspondiente a la Subzona 1.2 podrán aparcar en la Subzona 1.2 sin limitación horaria, y sin tener que abonar las tarifas establecidas. |
| **11. Artikulua. 1.3 azpigunean kudeaketa sistemaren ezaugarriak** | **Artículo 11. Características del sistema de gestión en la Subzona 1.3** |
| 11.1 Azpigune honetan aparkatzeko gehienezko aldia izango da aparkatzeko unean hasi eta egun bereko 19:00 arte. | 11.1 El período máximo de estacionamiento en esta Subzona será desde el momento del estacionamiento hasta las 19:00 horas del mismo día. |
| 11.2 Lehenengo ordu eta erdian ez da tarifarik ordaindu behar ibilgailua aparkatzeagatik. Hortik aurrera, gainerako denborarako, gehienezko aparkaldia osatu arte (19:00 arte), aldi baterako tarifa progresibo bat finkatuko da, denboraren araberakoa, eta horrek ez du ekarriko inoiz gehienezko diru-kopuru bat gainditzea, behar den moduan ezarritako diru-kopurua. | 11.2 No existirá la obligación de pago de tarifa alguna por el estacionamiento del vehículo durante la primera hora y media. De ahí en adelante, para el tiempo restante hasta completar el período de estacionamiento máximo (hasta las 19:00 horas), se fijará una tarifa temporal progresiva, en función del tiempo, la cual nunca podrá dar lugar a que se supere una cantidad de dinero tope, oportunamente establecida. |
| 11.3 Edozelan ere, 1.3 Azpiguneari dagokion makina banatzailearen tiketa erakutsi beharko dute aparkatutako ibilgailuek, irakurtzeko moduan. | 11.3 En todo caso, los vehículos estacionados deberán exhibir de forma legible el ticket de la máquina expendedora correspondiente a la Subzona 1.3. |
| 11.4 Aparkaleku denbora igarotakoan, erabiltzaileak ibilgailua kendu egin beharko du hortik, eta ezingo du berriro aparkatu 1.Gunean, hiru orduko aldi bat igaro arte. | 11.4 Transcurrido el periodo de aparcamiento, la persona usuaria deberá proceder a la retirada del vehículo, no pudiendo volver a estacionarlo en la Zona 1, hasta que haya transcurrido un período de tres horas. |
| 11.5 1.3 Azpigunean ez dago egoiliarrik. | 11.5 En la Subzona 1.3 no existen residentes. |

| | |
|---|---|
| Hortaz, ez da banatuko 1.3 Azpiguneko egoiliar txartelik. | No se expenderán, por tanto, tarjetas de residentes de la Subzona 1.3. |
| **12. Artikulua. Tarifak** | **Artículo 12. Tarifas** |
| Tarifak Udalak une bakoitzean onartutakoak izango dira, eta dagokion Ordenantza Fiskalean egongo dira jasota. | Las tarifas serán las aprobadas en cada momento por el Ayuntamiento y estarán recogidas en la correspondiente Ordenanza Fiscal. |
| **13. Artikulua. Zaintza eta kontrola** | **Artículo 13. Vigilancia y control** |
| Aurreko arauak bete daitezen zaintzea eta kontrolatzea dagokie udaleko funtzionario eskudunei eta TAOko pertsona zaintzaileei, berariaz izendatutakoak eginkizun hori betetzeko. | La vigilancia y control del cumplimiento de las anteriores normas está encomendada al personal funcionario municipal competente y a las personas vigilantes de la OTA, expresamente designadas para tal quehacer. |
| **14. Artikulua. Ezintasuna duten pertsonentzako plazak** | **Artículo 14. Plazas para personas con discapacidad** |
| Ezintasuna duten pertsonentzako plazek gainerako plazek duten araubide berbera dute, hau da, dagokien tiketa edo egoiliar txartela erakutsi beharko dute ibilgailuek, eta muga berberak izango dituzte. | Las plazas destinadas a personas con discapacidad tienen el mismo régimen que el resto de las plazas, es decir, los vehículos deberán exhibir el ticket o tarjeta de residente correspondiente, y estarán sujetos a las mismas limitaciones. |
| **EGOILIARRENTZAKO ARAUBIDEA** | **RÉGIMEN DE RESIDENTES** |
| **15. Artikulua. Egoiliarrak** | **Artículo 15. Residentes** |
| 15.1 Egoiliarrentzako araubidea norbera erroldatuta dagoen Azpigunean aplikatuko da. | 15.1 El régimen de personas residentes es de aplicación a la Subzona en que estuvieran empadronadas. |
| 15.2 Egoiliarrentzako araubide bat baino gehiago bereizten da, eta horregatik daude txartel bat baino gehiago: | 15.2 Se distinguen diferentes regímenes de residentes, que dan lugar a la obtención de diferentes tarjetas: |
| - Egoiliar txartela "ohikoa"<br>- Egoiliar txartela "merkataritzakoa 1. mota"<br>- Egoiliar txartela "merkataritzakoa 2. | - Tarjeta de residente "convencional"<br>- Tarjeta de residente "comercial tipo 1"<br>- Tarjeta de residente "comercial tipo 2" |

| | |
|---|---|
| mota" | |
| **16. Artikulua. Egoiliarrak (ohikoak)** | **Artículo 16. Residentes (convencionales)** |
| 16.1 Ibilgailu jakin baterako egoiliar txartela lortu ahal izango dute era bateratuan baldintza hauek betetzen dituzten ibilgailu baten jabedun guztiek: | 16.1 Podrán obtener tarjeta de residente para un vehículo concreto todas aquellas personas físicas propietarias de un vehículo que de forma conjunta reúnan los siguientes requisitos: |
| Ibilgailuaren jabea Arrasateko ohiko pertsona fisiko bizilaguna izatea, eta Arrasaten erroldaturik egotea dagokion Azpigunean dagoen helbideren batean. Ondorio horietarako, ibilgailuaren jabetzat joko da ibilgailuaren zirkulazioko baimenean hala jasota dagoena. | Que el propietario del vehículo sea persona física residente habitual de Arrasate y se encuentre empadronada en Arrasate en algún domicilio ubicado en la Subzona correspondiente. A estos efectos, se considerará propietario del vehículo a quien así conste en el permiso de circulación del mismo. |
| Indarrean dagoen gidabaimena edukitzea. | Que disponga de permiso de conducir en vigor. |
| Ohiko helbidea, udal erroldan eta trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren erroldan, bat izatea. | Que el domicilio habitual, el que conste en el Padrón Municipal y en el Padrón del Impuesto de vehículos de tracción mecánica, sean coincidentes. |
| Ibilgailua izatea turismo bat edo ibilgailu misto bat. Edozelan ere, salbuetsita daude autokarabanak, hau da, ez da emango txartelik autokarabanentzat. | Que el vehículo sea un turismo o un vehículo mixto. Ello no obstante, quedan exceptuadas las autocaravanas, es decir, no se otorgará tarjeta para las autocaravanas. |
| Eskatzailea egunean egon behar da Arrasateko Udalarekin dituen betebeharretan (zergapekoak izan edo ez). | Que el solicitante de la tarjeta se encuentre al corriente de las obligaciones (tributarias o no) contraídas con el Ayuntamiento de Arrasate. |
| 16.2 Egoiliar txartela lortu dezakete ere Arrasaten ohiko bizilekua duten edo erroldaturik dauden pertsona fisikoek, aipatu Azpigunean, finantza errentako erregimenean (leasing edo renting) turismo bat edo ibilgailu misto bat dutenak, betiere baldintza hauek betetzen badituzte: | 16.2 También podrán obtener la tarjeta de residente aquellas personas físicas con residencia habitual y empadronadas en Arrasate, en la Subzona de referencia, que dispongan de un vehículo turismo o mixto en régimen de arrendamiento financiero (leasing o renting), siempre que cumpla con los siguientes requisitos: |
| Indarrean dagoen gidabaimena edukitzea. | Que disponga de permiso de conducir en vigor. |
| Ibilgailuaren aseguruan ohiko gidari moduan | Que en el seguro del vehículo figure como |

| | |
|---|---|
| agertzea. | conductor habitual. |
| Egunean egotea Arrasateko Udalarekin dituen betebeharretan (zergapekoak izan edo ez). | Que se encuentre al corriente de las obligaciones (tributarias o no) contraídas con el Ayuntamiento de Arrasate. |
| 16.3 Arrasateko Udalak ofizioz egiaztatu dezake edo errekeritu diezaioke interesdunari, kreditatu dezan ohiko eta benetako bizilekua eta helbidea. | 16.3 El Ayuntamiento de Arrasate podrá comprobar de oficio o requerir al interesado para que acredite la residencia efectiva y habitual y el domicilio. |
| 16.4 Egoiliar txartela ibilgailuaren aurrealdeko kristalaren barrualdean jarri beharko da. | 16.4 La tarjeta de residente deberá ser colocada en la parte interior de la luna delantera del vehículo. |
| **17. Artikulua. Merkataritzakoa, 1. mota** | **Artículo 17. Comercial tipo 1** |
| Egoiliarrentzako araubidea ere aplikatuko zaie eta 1. motako merkataritza txartela izenekoa lortu ahal izango dute dagokion Azpigunean establezimendua duten merkatariek, haien ibilgailua erroldaturik egonda Arrasateko Udaleko trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko Zergaren erroldan, establezimenduaren helbide berberean, eta 16.1 puntuko b), d) eta e) hizkietan aipatzen diren baldintzak betetzen badituzte. Ibilgailu motari dagokionez (d hizkia), gainera, halako txartela eman dakieke gehienezko pisu baimendua 3.500 kg.tik behera duten industria ibilgailuei. | 17.1 También les será de aplicación el régimen de residentes y podrán obtener la denominada tarjeta comercial tipo 1, los comerciantes que tengan establecimientos radicados en la Subzona correspondiente, cuyo vehículo esté empadronado en el Padrón del Impuesto de vehículos de tracción mecánica del Ayuntamiento de Arrasate en la misma dirección que la del establecimiento, y cumpla con los requisitos señalados en las letras b), d) y e) del punto 16.1. En cuanto al tipo de vehículo (letra d), se podrá conceder, además, este tipo de tarjeta a los vehículos industriales con peso máximo autorizado de 3.500 kg. |
| 17.2 Establezimendu bakoitzeko halako txartel bakar bat emango du Udalak (IFZ bakoitzeko bat). | 17.2 Se concederá una única tarjeta de este tipo por cada establecimiento (una por cada NIF). |
| **18. Artikulua. Merkataritzakoa, 2. mota** | **Artículo 18. Comercial tipo 2** |
| Aplikatuko zaie ere egoiliarrentzako araubidea eta 2. motako merkataritza txartela izenekoa lortu ahal izango dute dagokion Azpigunean establezimendua duten merkatariek, haien ibilgailua, nahiz eta ez egon erroldaturik Arrasateko Udaleko trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko Zergaren erroldan, ibilgailu misto errotuluduna edo gehienezko pisu | Les será, asimismo, de aplicación el régimen de residentes y podrán obtener la denominada tarjeta comercial tipo 2, los comerciantes que tengan establecimientos radicados en la Subzona correspondiente, cuyo vehículo, aún no estando empadronado en el Padrón del Impuesto de vehículos de tracción mecánica del Ayuntamiento de Arrasate, sea un vehículo |

| | |
|---|---|
| baimendua 3.500 kg-tik behera duten industria ibilgailu errotuluduna bada, betiere ibilgailuaren titularra (jabetzan edo errentan) eta merkataritza establezimenduan garatutako jardueraren titularra berbera bada. Eskatzailea egunean egon behar da Arrasateko Udalarekin dituen betebeharretan (zergapekoak izan edo ez). | mixto rotulado o vehículo industrial con peso autorizado máximo de 3.500 kg. rotulado, siempre y cuando el titular del vehículo (ya sea en propiedad o en régimen de arrendamiento financiero) sea el mismo que el titular de la actividad desarrollada en el establecimiento comercial. Será necesario que el solicitante se encuentre al corriente de las obligaciones (tributarias o no) contraídas con el Ayuntamiento de Arrasate. |
| Ibilgailuaren errotulazioa jardueraren merkataritza izenarekin eta/edo anagramarekin bat etorriko da, eta Arrasaten dagoen kokalekua aipatu behar du. | La rotulación del vehículo será acorde con la denominación y/o el anagrama comercial de la actividad y haciendo referencia a la ubicación sita en Arrasate. |
| **19. Artikulua. Egoiliarrentzako txartelak** | **Artículo 19. Tarjetas de residentes en general** |
| 19.1 Egoiliar txartela banatzen da Azpigune jakin baterako eta ez du baliorik izango beste Azpigune batzuetan. | 19.1 La tarjeta de residente se expende para una determinada Subzona y no tendrá validez en otras Subzonas. |
| 19.2 Txartelean jasota egongo da ibilgailu baimenduaren matrikula, zein Azpigunetan erabili daitekeen hau, eta balio urtea. | 19.2 En la tarjeta constará la matrícula del vehículo autorizado, la Subzona en la que es de aplicación y el año para el que tenga validez. |
| 19.3 Egoiliar txartela banatzeak, aldagai guztietan, tasak sortuko ditu, Udalak Ordenantza Fiskalaren bidez urte bakoitzerako zehazten dituenak. Tarifak ezberdinak izango dira "ohiko egoiliar txartela" bada, "1. motako merkataritzako egoiliar txartela" bada, edo "2. motako merkataritzako egoiliar txartela" bada. | 19.3 La expedición de la tarjeta de residente, en sus distintas variantes, devengará las tasas que al efecto cada año el Ayuntamiento determine mediante Ordenanza Fiscal. Las tarifas serán diferentes según se trate de "tarjeta de residente convencional", de "tarjeta de residente comercial tipo 1" o de "tarjeta de residente comercial tipo 2". |
| 19.4 Baimen aldian egoiliar bereizgarria lortzeko baldintzetakoren bat aldatzeak ekarriko du horrekin batera balioa deuseztatzea, eta Udalari itzuli beharko zaio 7 egun naturaleko epean, arrazoiaren gorabehera gertatzen denetik, eta ez du izango kalte-ordainik. | 19.4 La modificación durante el periodo de autorización de alguno de los requisitos para la obtención del distintivo de residente llevará aparejada la anulación automática de su validez, debiendo ser devuelta al Ayuntamiento en el plazo de 7 días naturales desde que se dé la circunstancia que lo motive, sin que dé lugar a indemnización alguna. |

| | |
|---|---|
| **20. Artikulua. Egoiliar txartela lortzea**<br><br>20.1 Egoiliar txartela eskatzeko, interesdunek dagokion eskaera aurkeztu beharko dute, agiri hauekin batera: | **Artículo 20. Obtención de la tarjeta de residente**<br><br>20.1 Para la solicitud de la tarjeta de residente las personas interesadas deberán presentar la solicitud correspondiente acompañada de la siguiente documentación: |
| Nortasun Agiria, bizileku txartela edo pasaportea. | Documento Nacional de Identidad, Tarjeta de Residencia o Pasaporte. |
| Eskatzailearen gidatzeko baimena. | Permiso de conducir de la persona solicitante. |
| Zirkulazioko baimena. | Permiso de circulación. |
| Ibilgailuaren fitxa teknikoa. | Ficha técnica del vehículo. |
| Finantza errentamenduko erregimenean ibilgailu bat duten interesdunen kasuan, goian aipatutako agiriez gain, hauek aurkeztu beharko dituzte: | En el caso de las personas interesadas que tengan un vehículo en régimen de arrendamiento financiero, deberán presentar, además de los documentos arriba enumerados: |
| Ibilgailuaren asegurua, eta hor agertuko du ohiko gidaria dela. | El seguro del vehículo en el que conste que es el conductor habitual. |
| "2. motako merkataritzako egoiliar txartela" lortu nahi dutenek hauek ere aurkeztu beharko dituzte: | Los que deseen obtener la "tarjeta de residente comercial tipo 2", deberán presentar, además: |
| Ibilgailuaren argazkiak, eta hor ikusi behar da jardueraren errotulazioa. | Fotografías del vehículo donde se observe la rotulación de la actividad. |
| 20.2 Eskaera eta behar diren agiriak aurkeztu eta gero, Udalak egiaztatuko du Ordenantza honetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela, hala nola, ibilgailua altan emanda egotea Arrasateko Udaleko trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko Zergaren erroldan, jabea erroldaturik dagoen helbide berean, edo dagokion merkataritza establezimenduaren helbidean, eta eskatzailea egotea egunean 16.1 e) artikuluan aipatzen diren betebeharretan, bai eta Ordenantzan jasota datorren beste edozein gai ere. | 20.2 Presentada la solicitud y documentación necesaria, el Ayuntamiento comprobará que se cumplen los requisitos exigidos en la presente Ordenanza, tales como que el vehículo esté dado de alta en el Padrón del Impuesto de vehículos de tracción mecánica del Ayuntamiento de Arrasate, en el mismo domicilio donde esté empadronado el propietario, o en el domicilio del establecimiento comercial correspondiente, y que el solicitante esté al corriente de las obligaciones a que se refiere en el artículo 16.1.e), así como cualquier otro extremo |

| | |
|---|---|
| | contemplado en la Ordenanza. |
| Udalak beharrezkotzat jotzen dituen agiriak eskatu ahal izango dizkio interesdunari, behar bezala justifikaturik agertzen den edozein gai egiaztatzeko. | El Ayuntamiento podrá exigir a la persona interesada que aporte cuantos documentos considere necesarios para acreditar cualquier extremo que no apareciera debidamente justificado. |
| 20.3 Txartela urtero berrituko da eta horretarako goian aipatutako agiri berberak aurkeztu beharko ditu interesdunak. Agiriak berritzeko, berritu aurreko urteko azken hiruhilean aurkeztu ahal izango ditu eskaerak. | 20.3 La tarjeta se renovará anualmente y para ello el interesado habrá de presentar la misma documentación que la arriba indicada. Para realizar las renovaciones con la antelación suficiente las solicitudes podrán ser presentadas en el último trimestre del año anterior al de la renovación. |
| **BESTE ARAUBIDE BEREZI BATZUK** | **OTROS REGÍMENES ESPECIALES** |
| **21. Artikulua. Txartel bereziak ematea** | **Artículo 21. Otorgamiento de tarjetas especiales** |
| Alkateak txartel bereziak eman ahal izango ditu Gune eta/edo Azpigune jakin baterako, eta urteko balioa izango du, udalaren iritziz egoera bereziak edo salbuespenezkoak egiaztatzen dituzten ibilgailuentzat. | La Alcaldía podrá otorgar tarjetas especiales para una determinada Zona y/o Subzona, y con validez anual, para los vehículos que a criterio municipal acrediten circunstancias especiales o excepcionales. |
| Txartel hori lortzeko, alkateak kasu bakoitzean eskatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da. | Para obtener la mencionada tarjeta, se presentará la documentación que en cada caso exija la Alcaldía. |
| Ordenantza honetako dagozkion artikulu guztiak aplikatuko zaizkio txartel bereziari. | A la tarjeta especial le serán de aplicación todos los artículos de la presente Ordenanza que sean pertinentes. |
| **TAXIAK ETA ANBULANTZIAK** | **TAXIS Y AMBULANCIAS** |
| **22. Artikulua. Taxiak eta anbulantziak** | **Artículo 22. Taxis y ambulancias** |
| Ez daude lotuta Ordenantzari (aparkalekuaren denbora eta espazio muga eta horren ordainketa), berariazko seinalerik edo bestelako araurik ez badago, eta betiere zerbitzua ematen ari badira: | No estarán sujetos a esta Ordenanza (limitación temporal y espacial del estacionamiento y pago del mismo), salvo señalización específica o norma en contrario y siempre que estén prestando su servicio: |

| | |
|---|---|
| Auto-taxi ibilgailuak, gidaria bertan dagoenean. | Los vehículos auto-taxi, cuando la persona conductora esté presente. |
| Osakidetza, Gurutze Gorria edo beste osasun erakunde batekoak diren edo horiei zerbitzua ematen dieten anbulantziak. Ibilgailu horiek behar bezala identifikaturik egon behar dute kanpoaldean, eta gidariak bertan egon behar du. | Las ambulancias que pertenezcan o presten sus servicios para Osakidetza, Cruz Roja u otras instituciones sanitarias. Dichos vehículos deberán estar convenientemente identificados en su exterior y la persona conductora deberá estar presente. |
| **ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK** | **INFRACCIONES Y SANCIONES** |
| **23. Artikulua. Xedapen orokorrak** | **Artículo 23. Disposiciones generales** |
| 23.1 Ordenantza honetako edozein artikulu ez betetzeak trafiko ordenazioko arauekiko arau haustetzat joko da, eta zigortu egingo da Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duen 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko V. Tituluan ezarritakoaren arabera, baita garapeneko erregelamenduan eta horiekin bat datozen gainerako legezko xedapenetan. | 23.1 El incumplimiento de cualquiera de los artículos de la presente Ordenanza tendrá la consideración de infracción a las normas de ordenación de tráfico y se sancionarán en virtud de lo establecido en el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial en su título V, su Reglamento de desarrollo y demás disposiciones legales concordantes. |
| 23.2 Arau hausteak ekarriko dute zigorrak jartzea, Errege Dekretu horretan ezarritako legezko prozeduraren bidez, edo legez edo arauz hura ordezten duenaren bidez. | 23.2 Las infracciones traerán consigo la imposición de sanciones mediante el procedimiento legal establecido en el referido Real Decreto, o el que legal o reglamentariamente le sustituya. |
| 23.3 TAOren zaintzaileek, udaltzainek eta hartarako funtzionario eskudunek Ordenantza honen arau-hausteengatik salaketak egingo dituzte. | 23.3 Las personas vigilantes de la OTA, personal de la Policía Municipal y los funcionarios competentes al efecto emitirán las denuncias debidas a infracciones de esta Ordenanza. |
| 23.4 Ordenantza honetan jasotzen ez den guztian Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuan eta aplikaziokoa den gainerako garapen araudian xedatutakoaren esanetara egongo da. | 23.4 En lo no previsto por la presente Ordenanza se estará a lo dispuesto en el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a motor y Seguridad Vial y demás normativa de desarrollo que sea de aplicación. |

| 24. Artikulua. Arau hausteak | Artículo 24. Infracciones |
|---|---|
| Ordenantza honetako arau haustetzat joko dira, dagokion trafiko araudian tipifikatutako beste arau hauste batzuen kaltetan izan gabe, jarduera hauek: | Se consideran infracciones de la presente Ordenanza, sin perjuicio de otras infracciones tipificadas en la correspondiente normativa de tráfico, las siguientes actuaciones: |
| Arau hauste arinak: | Infracciones leves: |
| Aparkaleku baimenduko denbora gainditzea. | Rebasar el tiempo de estacionamiento autorizado. |
| Tiketik ez lortzea edo ez jartzea ikusteko leku batean eta/edo irakurtzeko moduan. | No obtener el ticket o no colocarlo en sitio visible y/o de forma legible. |
| Berriro Gunean aparkatzea, bertan aparkatzeko aldia bukatu eta gero, aparkatzeko aldi bien artean hiru orduko aldia igaro barik. | Volver a estacionar en la Zona, una vez finalizado el periodo de estacionamiento en la misma, sin que haya transcurrido el período de tres horas entre ambos estacionamientos. |
| Arau hauste larriak: | Infracciones graves: |
| Tiket edo txartel manipulatu, faltsutu edo deuseztatua erabiltzea, Ordenantza honetako 19.4 artikuluan adierazitako terminoetan. | Utilizar un ticket o tarjeta manipulada, falseada o anulada en los términos señalados en el artículo 19.4 de la presente Ordenanza. |
| **25. Artikulua. Zigorrak** | **Artículo 25. Sanciones** |
| Aurreko arau hausteei aplikatuko zaizkie zigor hauek: | A las anteriores infracciones, les serán de aplicación las siguientes sanciones: |
| Arau hauste arinei, 50 €-ko isun bat | A las infracciones leves, una multa de 50 € |
| Arau hauste larriei, 200 €-ko isun bat | A las infracciones graves, una multa de 200 € |
| Hori guztia, trafikoari buruzko zigor espedienteak izapidetzeari buruzko dagokion araudia aplikatzean, goiz ordaintzeko kasuetan arauz ezarritako murrizketak aplikatu dakizkielarik. | Todo ello, sin perjuicio de que en aplicación de la correspondiente normativa sobre tramitación de los expedientes sancionadores en materia de tráfico, les sean aplicables las reducciones normativamente establecidas para los supuestos de pronto pago. |
| **26. Artikulua. Salaketak deuseztatzea** | **Artículo 26. Anulación de las denuncias** |
| Kudeaketa sistemak aukera ematen du aldebakarrez salaketak deuseztatzeko, arau | El sistema de gestión proporciona la posibilidad de anular unilateralmente las |

| | |
|---|---|
| hauste arin moduan tipifikatutako arau hausteak direla-eta jarritako salaketak. Horretarako, tiketak banatzeko makinan bertan ezarritako kopurua ordaindu beharko da, gehienez ere arau haustea gertatu denetik 24 orduko epean. | denuncias efectuadas con ocasión de la comisión de las infracciones tipificadas como leves. Para ello será preciso proceder al pago de la cantidad establecida en la propia máquina expendedora de tickets en el plazo máximo de 24 horas desde que se haya producido la infracción. |
| Kopuru hori ordaintzeak ez du esan nahi salatutako ibilgailuak jarraitu ahal izatea aparkaturik egon dagoen gunean, eta berehala kendu behar da hortik. | El pago de dicha cantidad no supone que el vehículo denunciado pueda continuar estacionado en la zona en que se hallare, debiendo ser retirado de forma inmediata. |
| Salaketak deuseztatzeko ordaindu beharreko kopurua urtero egongo da jasota Ordenantza Fiskaletan. | La cantidad a abonar para la anulación de las denuncias será recogida anualmente en las Ordenanzas Fiscales. |
| **27. Artikulua. Ibilgailua ibilgetu eta eramatea** | **Artículo 27. Inmovilización y retirada del vehículo** |
| Udalak ibilgailua eraman ahal izango du, ikusten badu ibilgailuak aparkaturik jarraitzen duela eremuan, hartarako gaitasunik gabe (tiket baliodun edo indarrean duen txartela), gutxienez 24 orduan. | El Ayuntamiento podrá proceder a la retirada del vehículo si observa que el mismo permanece estacionado en la zona sin habilitación para ello (ticket válido o tarjeta en vigor) durante al menos 24 horas. |
| Bide publikotik ibilgailuak eramateko zerbitzuak, bai eta udal gordailuetan egindako egonaldiak ere, Ordenantza Fiskaletan jasota dauden tasak sortuko dituzte, eta horiek interesdunak ordaindu beharko ditu ibilgailua berreskuratu baino lehen, eta kontuan izanik zigorrak ere jarri dakizkiokeela. | El servicio de retirada de vehículos de la vía pública, así como la estancia de los mismos en los depósitos municipales, devengarán las tasas contempladas en la Ordenanza Fiscal correspondiente, que serán satisfechas por el interesado antes de la recuperación del vehículo, y sin perjuicio de las sanciones que en su caso pudieran imponerse. |
| **ORDENANTZAREN APLIKAZIOA ETETEA** | **SUSPENSIÓN DE LA APLICACIÓN DE LA ORDENANZA** |
| **28. Artikulua. Ordenantzaren aplikazioa unean-unean eteteko aukera.** | **Artículo 28. Posibilidad de suspender puntualmente la aplicación de la Ordenanza** |
| Salbuespenez, trafikoan eta aparkalekuan eragiten dituzten inguruabarrek hala aholkatzen dutenean, alkateak dagozkion neurriak hartu ahal izango ditu, eta aldi batez aldatu edo eten | Con carácter excepcional, cuando las circunstancias que inciden en el tráfico y el aparcamiento así lo aconsejen, la Alcaldía podrá adoptar las medidas que considere oportunas, |

| | |
|---|---|
| ahal izango ditu Ordenantza honek erregulatutako aparkalekuaren baldintzak. | modificando o suspendiendo temporalmente las condiciones del establecimiento reguladas por la presente Ordenanza. |
| **XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA** | **DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA** |
| Alkateak ahalmena izango du Ordenantza hau egoki interpretatu eta aplikatzeko behar diren aginduak eta jarraibideak emateko. | La Alcaldía tendrá facultad para dictar cuantas órdenes e instrucciones resulten necesarias para la adecuada interpretación y aplicación de la presente Ordenanza. |